

Jazzaldia 50, Donostiako Jazzaldiaren (Heineken Jazzaldia) historiako bost hamarraldi dokumentatzen dituen liburua, salgai dago jada

Heineken Jazzaldiak *Jazzaldia 50* liburua argitaratu du, non Donostiako Jazzaldiaren bost hamarraldiak dokumentatzen baitira. Estatuko jazz-jaialdi guztietatik antzinakoena da, alde handiz, eta Europako urtetsuenetako bat.

Jazzaldia 50 liburuan, berrogeita hamar edizioetako kronikak, kartelak eta artistak daude jasota, kalitate handiko argazki ugariz horniturik: Trinitate Enparantzako lehen urteetako irudi erdiragarriak, gaur egungoekin kontrastea eginez; Jazzaldiaren agertokitzat erabili diren hogeit hamar leku baino gehiago; Zurriolako hondartzako eta Kursaalako terrazetako jendetza ikusgarriak, ikus-entzuleek gogo beroz erantzun baitiete beti Jazzaldiaren proposamenei; eta, batez ere, parte hartu duten musikariak.

Jazzalditik igaro diren artisten orrialde osoko erretratu bikainak nabarmentzen dira: Charles Mingus, Ella Fitzgerald, Dizzy Gillespie, Art Blakey, Dexter Gordon, Chick Corea, Joe Henderson, Miles Davis, Marsalis anaiak, Phil Woods, Don Cherry, Ornette Coleman, Gerry Mulligan, Van Morrison, Keith Jarrett, Ray Charles, McCoy Tyner, Nina Simone, Herbie Hancock, Stan Getz, B.B. King, Paco de Lucía, John McLaughlin, Bebo Valdés, Pat Metheny, Liza Minnelli, Elvis Costello, George Benson, Diana Krall, Jamie Cullum, The Manhattan Transfer, Celia Cruz, Hank Jones, Clark Terry, Elvin Jones, James Brown, Bobby McFerrin, Jan Garbarek, Joe Cocker, Jan Garbarek, Dee Dee Bridgewater, John Scofield, Isaac Hayes, John Zorn...

Ikusten den bezala, Donostiako Jazzaldiaren historia jazz garaikide guztiaren historia da. Ez dago kasik, azken mende erdi honetan, Heineken Jazzaldian parte hartu ez duen jazzeko izen handirik.

51 Heineken® Jazzaldia

5.000 izen baino gehiagoko aurkibide batean biltzen dira musikari horiek guztiak, bai kartel-buruak eta bai haien laguntzaile lanetan aritu zirenak, Jazzaldian parte hartu zuten urtearen arabera. Tresna erabilgarria da, beraz, jazz zaleentzat, bereziki.

Liburua, azal gogorrekoa eta kalitate handiko couché paperezko 288 orrialde dituena, 35 eurotan dago salgai eta www.heinekenjazzaldia.com web orrian eta FNAC-en eta Elkar-en liburudendetan eros daiteke.